



# ALDATU ZURE ZAPATAK

Europako herritarrak:

## EBko merkatuek merkataritza bidegabeko produktuak eskaintzen dituzte



*Oinetakoen ekoizpena (India).  
Foto: Heather Stilwell.*

Herritarrekin herrialdeotan eginiko 12 topaketatako ekarpenetatik abiatutako txostena:

**AUSTRIA, BULGARIA, TXEKIAR ERREPUBLIKA, DANIMARKA, FINLANDIA, ALEMANIA,  
ITALIA, NAFARROA (ESTATU ESPAINIARRA), POLONIA, ESLOVAKIA, SUECIA ETA  
ERRESUMA BATUA.**

## EUROPAKO TOPAKETA HERRITARRAK

Topaketa batzuk eginda, Aldatu zure zapatak (Change Your Shoes) proiektuak herritarren iritziak eta ideiak bildu zituen Europako 12 herrialdeetan EBko merkataritza eta garapen politikak mundu osoan oinetakoen eta jantzigintzaren industriako baldintzak nola hobe ditzakeen aztertzeko.

Herritarrekiko topaketa horien helburua zen Europako kontsumitzaileek nolako informazioa behar duten ikusteko proposamenak egitea, haiek modu aktiboan parte har dezaten. Herritarren eta GKE, erakunde publiko (gobernua), alderdi politiko, toki administrazio, sindikatu eta enpresa batzuen arteko elkarrizketarako guneak izan ziren.

12 bilerak ikasteko ariketa eta eztabaida foro bihurtu ziren, parte-hartzaileen gogoberotasun eta konpromiso giroan. Gai anitz eztabaidatu ziren. Adituek EBko merkataritza hitzarmenen eta garapen politiken alderdi garrantzitsuak azaldu zituzten, larru-zurratzeari eta mundu osoko oinetakoen fabriketako lan baldintzei dagokienez. Parte-hartzaileek galderak eta proposamenak planteatu zituzten oinetakoen industriaren garapenaz, bai industriaren ikuspuntutik hobekuntzei dagokienez bai EBk hobeki erregulatzeari dagokienez.

Bilerak 2015 Garapenaren Europako Urtearen eremuan izan ziren (topaketa guztiak udazken eta neguan egin ziren), Europako Batzordeak Change Your Shoes proiektuaren bitartez finantzaturik.

## EB-KO MERKATARITZA ETA GARAPEN POLITIKA

Pobrezia errotik kentzea eta lan eta giza eskubideen sustapena dira EBko merkataritza eta garapen politikaren oinarriko printzipioak.

Lisboako Itunaren 3.5 artikulua finkatzen du Europar Batasunak munduarekin nolako harremanak izan behar dituen, zein ditu obligazioak eta zein alderdi sustatu behar dituen:

“(…)Planetako garapen jasangarria, herrien arteko elkartasuna eta elkarrekiko errespetua, merkataritza libre eta justua, pobrezia errotik kentzea eta giza eskubideen babesa”.

## “Gehiago begiratzea merkataritza eta garapen politiken arteko koherentzia promesak”. – Finlandia

EBko merkataritza politikak lau ditu oinarriko helburuak eta horietako bat merkataritzak planetako garapen jasangarria bultzatzeko balio duela bermatzea da.

EBk nazioarteko beste helburu garrantzitsu batzuk indartzeko erabiltzen du bere merkataritza politika. Horietako bat garapen bidean diren herrialdeetako langileen lan baldintzak hobetzen ahalegintzea da. Bigarrenik, merkataritza eta ekonomia hedapeneko testuinguru batean oinarriko lan eskubideak eta ingurumena babesteko baldintzak errespetatzen direla bermatzean datza. Azkenik, garrantzitsua da merkataritza sistema irekiak sorturiko lanpostuek nazioarteko lan arauak betetzea.

EB munduan garapenerako laguntza gehien ematen duena da. Laguntza horiek jantziak eta oinetakoak ekoizten dituzten herrialdeetara ere bideratzen dira, Bangladesh, Vietnam eta Indonesiara esaterako. Bere merkataritza hitzarmenen bidez, Europar Batasunak eta egoitza EBn duten enpresak oso tinko ezarri daude herrialde horietan.

Egia esan, EBko merkataritza eta garapen politiken asmoak gorabehera, kontsumitzaile europarrek enpresa europar nagusiei –H&M, Adidas eta Gucci, adibidez– erosten dizkieten jantzi eta zapata gehienak ekoizten dituzten pertsonak pobrezian murgildurik daude lan eta giza eskubideak urratzen dizkieten bitartean.



Zurratzetegia (Bangladesh). Argazkia: Akash

## OINETAKOEN ETA JANTZIGINTZAREN INDUSTRIA GLOBALAREN ARAZOAK

Mundu osokoa den oinetako eta jantzi industria arazo endemiko batzuk pairatzen ari da, langileen giza eskubiderik oinarritzkoenen urraketekin lotuak. Hauek dira larrienak:

**Soldata ziztrinak:** maiz, herrialde ekoizleetako langileek ez dute lanbide arteko gutxieneko soldata jasotzen, are gutxiago soldata duinik, eta horrek pertsona horiek etxe ezegokietan bizitzera beharturik egotea eragiten du, baita malnutrizioa pairatzea ere.

**Lantoki arriskugarriak:** fabrikak egoera txarrean egon ohi dira eta horrek sutea eta egitura kolapsoa gertatzeko arriskua areagotzen du. Maiz, aireztapena ezegokia da, langileak hautsaren eta tenperatura altuen eraginpean geratzeko modukoa. Oinetakoen ekoizpenean lan arriskugarriak egin behar dira zurratzetegietan, non segurtasun arau egokiak ez errespetatzea ohikoa baita. Horrek

**”Zuzendari exekutiboek legearen aurreko erantzule behar dute izan. Hala bakarrik egiten ahalko dute lan eskubideen alde”.** – *Erresuma Batua*

kromoaren eta beste substantzia toxiko batzuen eraginpean jartzea eragiten du, eta azkenean ondorio ezin txarragoak izan ditzake.

Sindikatzeko eta negoziazio kolektiborako eskubidearen urraketa: maiz, lan baldintza hobek eta giza eskubideen errespetua exijitzen dituzten sindikatuek eta langileek jazarpen egoerei egin behar diete aurre, azkenean kaleratzen dituzte edo ondorio okerragoak pairatzen dituzte. Oro har, arropa ekoizten duten herrialdeetako gobernuek langileen lan eta giza eskubiderik oinarritzkoenak, sindikatzeko eta biltzeko askatasuna esaterako, babesteko historia pobrea dute.



Zurratzetegia (Bangladesh). Argazkia: Akash



Oinetakoen ekoizpena (India). Argazkiak: Heather Stilwell →

Toxinak jantzietan eta oinetakoetan: maiz, Europako kontsumitzaileek erosten dituzten jantzi eta oinetakoek kromoaren eta produktu kimiko arriskutsuen hondarrak dauzkate.

Hornikuntza katearen gardentasun falta: ia-ia ezinezkoa da kontsumitzaile europarrak beren arropa eta oinetakoak non eta zein baldintzatan ekoitzi dituzten jakitera heltzea.

### BILERETAKO PARTE-HARTZEA

Inplikaturiko pertsonetikiko bilerak EBko 12 herrialde kidetan egin ziren: Polonia, Austria, Suedia, Txekiar Errepublikak, Finlandia, Danimarka, Nafarroa (Estatu espainiarra), Bulgaria, Italia, Erresuma Batua, Eslovakia eta Alemanian. Parte-hartzaileen kopuru osoa 767 izan zen.

<i>Adituak</i>	43
<i>Erakunde publikoak</i>	95
<i>GKEak</i>	21
<i>Alderdi politikoak</i>	15
<i>Toki administrazioak</i>	5
<i>Sindikalistak</i>	34
<i>Herritarrak</i>	540
<i>Enpresak</i>	14

### BILEREN ONDORIOAK

Jendeak interes handiz entzun zituen aurkezpenak eta gai eta galdera anitz planteatu zituen. Gai horiek hainbat ataletan sailkatu ditugu: kontratazio publikoa, enpresek hornikuntza kate osoan zehar izan beharreko arreta, EBn sartzen diren salgaietarako giza eskubideen protokoloak, enpresa transnazionalak eta langileen egoera, besteak beste. Hauek eztabaidatu ziren gehien:

#### Hornikuntza katearen gardentasuna

Herritar europarrak kontsumitzen dituzten ondasunen ekoizpen kateen gardentasun faltaz kezkatuak daude.

Gardentasun beharra kontsumitzaileak oinetakoen eta jantzigintzaren industriako lan baldintza txarren jakitun direnean sortzen da. Haien langileek egiten dituzten aparteko orduei esker ekoitziriko zapatak eta arropa erosten dituzte eta, gainera, langileok horren soldata txikia jasotzen dute ezen duintasunez bizitzerik ez baitute. Marka gutxi batzuk beren ekoizpen zentroetan lan baldintza duinak sustatzen ahalegintzen badira ere, gehienek produktu horien fabrikazio prozesuari buruzko daturik eman gabe jarraitzen dute. Europako kontsumitzaileek ezin dute txinal soil batzuk edo luxuzko larruzko produktu bat ekoitzi duten langileak esplotatuak izan diren inola ere jakin.



Beraz, garrantzitsua da kontsumitzaileentzat markek beren hornikuntza kateaz publikoki informatu beharra izatea. Denbora luzean lan baldintza txarrak arretaren erdigunean egon dira. Horrek enpresa ekoizleek borondatezko Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko politikak (EGE/RSE) aplikatzea eragin du, baina gizarte eta lan arauen hobekuntza egokirik gabe. Hornikuntza kateen gardentasunak nahitaezko izaera balute, enpresek bi aldetatik eman beharko lukete kontu: langileen aurrean eta kontsumitzaileen aurrean.

Hauek lirateke hornikuntza kateak irekitzearen abantailarik garrantzitsuenetako beste biak: 1) Fabriketan istripurik gertatuz gero: Enpresen gaineko Printzipio Gidariak eta Giza Eskubideek markek erreakzionatu eta lan istripuen kasuetan irtenbideak eskaintzea exijitzen dute. Hornikuntza kate gardenek produktua zein markakoa den berehala hautematen lagunduko lukete eta arazoa konpontzeko ekintza plan bat ezar liteke. 2) Hornikuntza kateak irekitzeak produktuak fabrikatzeko erabiliriko materialei, haien jatorriari, elaborazio baldintzei, e.a. buruzko informazioa lortzea ahalbidetuko luke. Horrek ondorioak ditu bai pertsonen (langileen eta kontsumitzaileen) osasunean bai ingurumenaren babesean.

EBko kontratazio publikoari buruzko zuzentzarauak gobernuak eta toki administrazioak laguntzen ditu arazoizko prezioak eta giza eskubideekiko

errespetuaz ekoiztiriko produktuak eros ditzaten. Teorikoki zuzentzarau berria sektore publikoko erosleentzat baliagarritasun handiko tresna da. Baina, nola jakin dezakete zein produktu erosten ari diren? Nola ziurta dezakete haiek hornitzaileek estandar etikoak betetzen dituztela? Ez dago fabrika bateko langileria produktu zehatz bat elaboratzeko orduan ongi ala gaizki tratatua izan den jakiterik. EBko kontratazio publikoko gastuak BPGdaren %19,4koak direla kalkulatu da, 2,2 bilioi euro alegia. EBko kontratazio publikoari buruzko zuzentzarau berria eskuratu behar diren produktuen ekoizpen kateetako lan baldintzak hobetzea ahalbidetuko duen tresna izatea nahi badugu, enpresek beren hornitzaileei buruzko datuak eman behar dituzte.

Frogatu egin da beren hornitzaileen zerrenda argitaratu duten markek ez dutela merkatuan zuten tokian kalterik izan. H&M, Jack Wolfskin eta beste enpresa handi batzuek eta Nudie Jeans, G-Star eta beste konpainia txiki eta ertain batzuek egin dute jada.

## ” Kontratazio publikoak ekoizpen duina sustatzeko helburuak bete behar ditu”.

– Polonia

Munta horretako tresna baten ezaugarri teknikoak Estatu Batuetako ImportGeniusdatu basean inspira



Zurratzetegia (Bangladesh). Argazkia: Akash

litezke. Datu base horrek AEBetako aduanak ateratako datuak biltegitzen ditu; aduana gero herrialdera portuen bitartez sartzen diren salgai guztien zerrenda egiteaz arduratzen da. Eskuragarri egoten da hornikuntza kateko hornitzaileei buruzko informazioa, ordenaturik: inportazio sortak, ezaugarriak, produktu bakoitzaren balioa, e.a.

### **EBn sartzen diren salgaiak**

Topaketa herritarretan parte hartu zuten pertsonak hau hauteman zuten, hots, ezagutza eta hobetzeko berme gehiago lortzeko posibilitatea dagoela Europar Batasuneko merkataritza mugak oinetakoen eta jantzigintzaren sektoreko lan baldintzak handitzeko iragazki gisa erabiliz.

EBko merkatuan sartzen diren produktuak lan baldintza justuetan eta giza eskubideak erabat errespetatuz eginak behar dira. EBko bizi maila altua ez da kontinente honentzat ekoizten duten pertsonen osasunaren eta segurtasunaren kaltean inola ere izan behar. Mugak kontsumitzen ditugun ondasunen ekoizpen tokietako lan baldintzak hobetzeko tresna bihurtu behar dira.

Topaketa herritarretan parte hartu zutenak Europar Batasunean sartzen diren produktuak fabrikatzen dituzten langileen lan baldintzak arautzeko irizpide sozial zorrotzak finkatzearen alde zeuden. Lagun

anitzek bere kezka azaldu zuten EBtik kanpoko fabrikek ekoizle europarrek heldu behar dieten araudiak sistematikoki urratzeaz. Merkataritza hitzarmenak eta aduana eskubideak dira enpresa europarrak ekoizpen metodo justu eta osasungarri lan egitera legalki behartzeko tresnetakoak, salgaiaren jatorria zein den ere.

Enpresa anitzen jokaera kodeak bere web orrialdean kontsulta daitezke, baina, nor arduratzen da hori guztia betetzen dela bermatzeaz? Kezkek ez daude EGEko politikak ez betetzearekin bakarrik erlazionaturik. Ohikoa da lege nazionalak ez errespetatzea markek beren produktuak Bangladesh edo Indonesiako fabriketan erosten dituztenean. Markek herrialde horietan jarduten jarraitzen dute nahiz eta langileek gutxieneko soldata jasotzen ez duten, eta hornitzaileek ez dituzte ez segurtasun arauak ez lege nazionalak betetzen. Salgaiak EBra inportatuz, enpresa handiek produktu horiek herrialde bakoitzeko lege nazionalak, Indonesiakoak kasu, errespetatuz elaboratu direla erakusteko erantzukizuna dute. Exiji diezaiekegun gutxienekoa da. Gainera, borondatezko neurrien aplikazioa planteatu dezakete, soldata duinak ordaintzea adibidez.

Merkataritza hitzarmenak, bestalde, hornikuntza kateetako duintasun eta segurtasuna bermatzeko tresna egokia izan daitezke. Jasangarritasunaren

# “Europako enpresa guztientzako etiketa bakarra ezarri behar da. Integrala behar da, EBk oso onartua eta babestua”. – Txekiar Errepublika

ebaluazioak ekoizpen baldintza justuagoak erdiesteko helburuarekin loturiko lehen neurria dira. Ebaluazio horiek argi utzi behar dute arropa eta oinetakoen markek herrialde ekoizle bakoitzean nolako erronkei aurre egin beharko dieten. Hortaz, lur europarrera iristen diren produktu guztiek hainbat oztopo gainditu dituztela -soldata txikiak eta baja mediko ez aitortuak esaterako- frogatzeko gai izan behar dira markak. Horiek dituzte estatu legeriek erronkarik garrantzitsuenetako batzuk.

## Etiketak

Kontsumitzaileek ez dute produktuen elaborazio prozesuaren gaineko informaziorik (oinarrizkorik edo sakonik) jasotzen. Ekoizpen kateko lan baldintzei, produktu bat egiteko erabiliriko materialei, horien jatorriari eta beste zenbait alderdi garrantzitsuri dagozkien datuez ari gara. EBn badira etiketa ezberdinak, kontsumitzaileek produktu batek substantzia kaltegarriarik duen edo produktua ingurumenerako kaltegarria izan daitekeen jakin dezaten.

Oraingoz ez dago irizpide sozialak industria ingurune batean betetzen direla ziurtatzen duen etiketa orokorrik. Kontsumitzaileek ez dute informaziorik jasotzen soldata txikien, aparteko orduen, lantokiko segurtasun faltaren, sindikatze askatasunaren, e.a. problematikaz. Etiketa sozialik balego, kontsumitzaileak orienta litezke giza eskubideak errespetatzen dituzten produktuak eskura zitzaizkiren. EBk kontrolatu beharko luke egiaztagiri hori enpresaburuaren interesekiko loturirik gabea izan zedin, kontinenteko kontsumitzaileak beste etiketekin nahas ez zitezkeen. Ildo horretatik, Asia Floor Wage-ren irizpideak aise aplikatu litezke egiaztagiri etiketa baten lehen garapen fasean. Horrela, soldata duina zer den finkatzeko erreferentziako adierazle bat lortuko litzateke.

## INKESTA

Bilerak ez ziren EBko herritarrek oinetakoen industriaren arazoak konpontzen saiatzeko bide bakarra. Bilera horiez gain, 20 herrialdetako 10.000

laguni galdetu zitzaizkien oinetakoen industriako jasangarritasunaren eta duintasunaren alde egiteko orduan zein jarrera eta jokaera zuten, baita sektore horretan mundu mailan den ekoizpeneko giza eta ingurumen eskubideak betetzen direla bermatzeko Europar Batasunak zein egiteko bete beharko lukeen ere. Inkestak topaketa horietan izaniko hizpideak EBko biztanleriari, oro har, interesatzen zaizkiola agertu zuen. 2015eko ekainean, Nielsen enpresa arduratu zen Change Your Shoes kanpainarako elkarrizketak Internet bitartez egiteaz.

Europako biztanleen %3k soilik esan zuen EBko erakundeek garapenerako laguntza gaitan egiten dituzten jardueren gainean ongi informaturik dagoela. Unibertsitateko ikasleei dagokienez, ehunekoa 5era iritsi zen, baina %23k inolako informaziorik ez zuela esan zuen.

Inkestaturiko biztanleriaren %94k baino gehiagok uste du EBk merkatu europarrean sartzen diren salgaien ekologia eta giza eskubideei buruzko alderdiak arautu beharko litzuzkeela. Giza eta lan eskubideen defentsa kontsumitzaileen eskubideen babesa baino garrantzitsuagoa da. Arestian aipaturiko alderdi guztietan, inkestaturiko biztanleen erdiek baino gehiagok uste dute EBk lege esparruak finkatu behar dituela (hornikuntza eta ekoizpen kateko gardentasuna bermatzeaz eta produktuen alderdi ekologiko eta sozialen berri emanen duten etiketak sustatzeaz gain).

Arreta Europako merkaturako oinetako ekoizpenean jartzen badugu, inkestaturiko lagunen %28k esan zuen ez zuela gaiaren gaineko inolako informaziorik. %4k uste du oso informaturik dagoela. Merkataritza justu eta ekologikoko oinetakoen eskaera haz dadin palankarrik garrantzitsuena prezio egonkortasuna da -biztanleriaren %60 baino gehiago %10 gehiago gutxienez ordaintzeko prest egonen litzatekeen arren-, eta bigarrena, etiketa sinesgarriak erabiltzeko aukera.

Gizonek emakumeek baino diru gehiago gastatzen dute zapatatan, European orokorrean nahiz azterlanean parte hartu zuten herrialdeetako bakoitzean.



Zurratzetegia (Bangladesh). Argazkia: Akash

## ALDATU ZURE ZAPATAK PROIEKTUARI BURUZ

Oinetakoen sektorea modaren industriaren funtsezko parte bat da oro har. Hala ere, ehungintzan ez bezala, larruaren eta oinetakoen sektoreko ekoizpen prozesuei buruzko kezak ia-ia ez dira hedatzen. Europako Change Your Shoes kanpainak oinetakoen hornikuntza kate etiko, jasangarri eta gardena errebindikatzen du.

Pertsonak, kontsumitzaile eta herritar gisa, larruzko oinetakoen ekoizleen lan baldintzak hobetzeko exijitzeko mobiliza daitezten nahi dugu. Larruaren eta oinetakoen fabriketako lan eta ingurumen baldintzen

gaineko ikerkuntza sustatzen dugu EBko herritarrekin, administrazioarekin eta sektoreko markekin problema horri buruzko elkarrizketa bultzatzeko. Bestalde, oinetakoak ekoizten dituzten herrialdeetako sindikatu-ekin eta lan eskubideen aldeko taldeekin lan egiten dugu eta lan baldintzak hobetzeko egiten duten borrokaren alde egiten dugu.

Aldatu zure zapatak 15 erakunde europarrez eta 3 asiarrez osaturiko lankidetzat taldea da.



Txosten hau Europar Batasunaren finantzaketari esker egin da. Edukien erantzukizuna Change Your Shoes proiektuko kideei soilik dagokie eta ezin da inola ere jo Europar Batasuneko iritzia adierazten dutenik.

